

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Do-do si do...

DONIBANE LOHIZUNE, 1928. Udako goiz batez Maurice Ravel (1875-1937) hondartzan zegoen eta itsasoan bainu bat hartzea erabaki zuen. Urtebete lehenago, 1927an, Ida Rubinstein dantzari eta koreografo ezagunak "espainiar izaerako ballet batentzako" musika egiteko eskatu zion ziburutarrari. Pariseko Operan erraz ahaztuko ez zen lana estreinatu nahi zuen Rubinsteinek.

Ravelek Andaluziako antzinako dantza bat berreskuratu nahi zuen: boleroa. Baina musikariak egunak eta asteak pasa zituen Donibane Lohizuneko etxean, nota bat bera ere idaztea lortu gabe. Goiz hartan, hondartzako uretan sartuta jaso zuen luzaroan bilatutako inspirazioa. Korrika irten zen uretatik, korrika zeharkatu zuen hondartza, eta korrika egin zuen etxerainoko bidea, Gustavo Samazeuilh laguna, harrituta, atzetik segika zuela. Pianoaren aurrean eseri eta, hatzak oraindik bustita zituela, jotzen hasi zen: *do-do si do si do re do si la do-do la do*. Ravelen *Boleroa* jaio zen. Melodia sinplea behin eta berriz errepikatuz, ordu laurden inguruko obra osatu zuen. 1928ko azaroaren 22an estreinatu zuten. Publikoaren harridura izan zen lehen erreakzioa. Baina berehala arrakasta izugarria lortu zuen eta

Boleroa benetako maisulantzat jo zuten. Ez denek, ordea. Behin emakume batek ero baten lana zela esan zuen. Horrela erantzun zuen ziburutarrak: "*Celle-là, elle a compris*" (Horra hor, berak ulertu du). Maurice Ravelentzat neurriz kanpoko zen Boleroak jasotako harrera, hainbestearainoko arrakastak nekatu egin zuen. Beretzat, *Boleroaren* sorrera "musikaz betetako esperientzia bat" baino ez zen izan.

Baina *Boleroak* bere bidean aurrera egin zuen. Metro eta erdira iristen ez den Bo Derek aktorea mito bihurtu zuen *10, emakume perfektua* film kaxkarrean, belau-naldi oso bat liluratuta geratu baitzen aktore txikia hondartzan korrika ikusi zuenean *Boleroaren* notak entzuten ziren bitartean. Garai beretsuan, Sarajevoko Neguko Olinpiar Jokoetan, Jane Torvill eta Christopher Dean patinatzaile bikoteak inoiz izotz gainean eskainitako ikuskizunik ederrenetakoa eskaini zuten Ravelen piezaz lagunduta.

Bo Derek-en filma (zorioenez) ez dute zinemako antologiek jaso. Sarajevoko izotz pista (zoritxarrez) Balkanetako Gerran suntsitu zuten. Baina egunero jende mordo batek, konturatu gabe, melodia hauxe du buruan edo ezpainetan: *do-do si do...* ■

ARRASTOAK



ARTEMISA etxera eramateko 28,6 milioi dolar (21,4 milioi euro) ordaindu berri ditu bildumagile europar anonimo batek.

Enkantea New Yorkeko Sotheby's etxean izan zen eta, filmetan ikusi ohi den bezala, lehia gogorra izan zen hiru bildumagileren artean. Eta azkenean errekor guztiak hautsi zituen *Artemisa eta oreina* brontzeko eskulturak; eskultura baten truke inoiz ordaindutako kopururik handiena 27,4 milioikoa zen ordurarte, Brancusiren *Txoria espazioan* lanagatik duela 2 urte ordainduak.

Artemisaren eskultura K.a. I. mendea eta K.o. I mendea bitartean egin zuten, eta adituek lanaren mugimendua eta xehetasunen kalitatea nabarmentzen dituzte. Baina halako dirutza merezi ote du? Sotheby's-eko Richard M. Kesereyk baietz dio, zalantza izpirik gabe. Eta zer esango du, bada, kopuru horren zatitxo bat poltsikoan bero-bero duen bitartean?



Maurice Ravel konpositore ziburuarra Colbert Cassan margolariaren mihisean.